



MUSIKA

Barrokoaren purutasuna



Concerto Köln taldeko kideak.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Concerto Köln antzinako musika jotzen duen orkestra baino askoz gehiago da. Ibilbide luze eta oparoa du. 1985ean sortu zen, eta, handik aurrera, mundu osoan kontzertu eta bira ugari egin du. Esan dezakegu aldi barrokoari eskainitako talde nagusienetako bat dela gaur egungo musika-panoraman. Baina horrez gain, kontzertuez gain, topaketak eta mintegiak ere egiten ditu talde honek, eta Concerto Kölnen egoitza Kolonia hiriko lehen antzinako musikaren zentroa bihurtu da.

Esan bezala, musika barrokoari erabat lotuta dago talde hau, baina errepertorio zabala du, lehen barrokoko musikatik klasizismoraino baitoa. Izan ere, 2017an *Wagner Readings* izeneko proiektu batekin hasi ziren, Wagnerren

Nibelungoaren eraztuna trilogiaren irakurketa historizista egiteko nahian.

Talde famatu honen merezitako ospearen froga Donostian izandako kontzertua dugu. Mayumi Hirasaki biolin jole japoniarraren batutapean, XVIII. mendearen lehen erdiko *concerti grossi* osatutako programa eskaini zuten.

Hasieratik bukaeraraino Concerto Kölnen ezaugarriak disfrutatu genituen: estilo pasionatua, freskoa, eta, zentzu onenean, inprobisatua. Inprobisatua, obra bakoitzaren interpretazioa lehen aldiz joko balute bezala ateratzen delako, inongo kutsu ortopedikorik gabe. Gauza bat da bertsio on bat egitea, eta beste bat, bertsio fresko eta nolabait berria eskaintzea, talde honek egiten duen bezala.

**CORELLI, VIVALDI,
GEMINIANI, TELEMANN
ETA AVISON-EN LANAK
KONTZERTINOA ETA
ZUZENDARIA: MAYUMI
HIRASAKI**

DONOSTIAKO KURSAAL AUDITORIOA.
ABENDUAREN 14A

Soinu aldetik, gardentasuna eta delikadezia dira haien ezaugarriak, eta halaxe, doitasun osoz jo zituzten egitarauko zortzi *concerti grossi*. Bi lehendabizikoak, Eguberriek eskainitakoak, Corelliren 8. *Concerto grosso op. 6 'per la notte di Natale'* eta Vivaldiren biolin eta orkestrarako *RV 270 mi maiorrean 'Il riposo per il Natale'* fin eta gozagarriak atera ziren. Geminianiren *Concerti grossi op. 3 re maiorrean* eta *op. 7 si maiorrean* obren irakurketa sakona egin zuten. Charles Avison (Geminianiren ikaslea) konpositorearen 3. *Kontzertua sol minorrean* interpretatu zuten, aurrekoak bezain perfektua, eta, azkenik, Telemannen *Bi txirularentzako kontzertua TWV 52-E2 mi minorrean* eskaini zuten, melodiotsu eta arina. Mundiala. ●